

# I GAIA

## NAZIOARTEKO OGASUN PUBLIKOA

Esta obra se publica bajo una licencia Creative Commons



## NAZIOARTEKO OGASUN PUBLIKOA

**Ekonomia gero eta internazionalizatuago dago ia aspektu gehienetan.**

**Ondasunen eta zerbitzuen nazioarteko merkataritza gero eta garrantzitsuagoa da, BPGaren %20 eta %70 izateraino kasu batzutan. Mugaz gaindiko lanak egiten dituzten edo lan egiteko muga zeharkatzen duten pertsonen fluxu internazionala gero eta altuagoa da, eta, batez ere, finantza-kapitalen nazioarteko fluxuen tamaina izugarrikoa da.**

## KARTERAKO INBERTSIO GARBIAK (EGUNGO \$etan)




Iturria: Munduko Bankua. Eskuragarri [datos.bancomundial.org](http://datos.bancomundial.org) web-orrian.

**Karterako baloreen artean barneratzen dira:**

- Errenta aldakorreko baloreen sarrera garbia, zuzeneko inbertsio gisa erregistratu ez direnak
- Akzioak, baloreak, deposituko ordainagiriak (Estatu-Batuarrak edo mundu mailakoak) eta nazioarteko inbertitzaileek baloreen merkatu lokalean erositako zuzeneko akzioak.

**Datuak egungo US\$ preziotan**

## TRANSFERENTZIA PERTSONALAK ETA LANGILEEI ORDAINKETAK (EGUNGO \$etan)



Iturria: Munduko Bankua. Eskuragarri datos.bancomundial.org web-orrian

Nazioareko Diru Funtsaren (NDF) Ordainketen Balantzearen Gidaliburuaren 6. argitalpenean definitutako bi elementuen batura dira datuak: transferentzia pertsonalak eta langileei ordainektak. Datuak egungo US\$ preziotan neurtuta daude.


## TRANSFERENTZIA PERTSONALAK ETA LANGILEEI ORDAINKETAK (EGUNGO \$etan)

Jasotako transferentzia pertsonalak eta langileei ordainketak (ordainketen balantzea, egungo US\$ preziotan)

- Transferentzia pertsonalek barne hartzen dute:
  - Familia egoiliarrek, familia ez-egoiliarrei eskudirutan edo espezetan egindako transferentziak
  - Familia egoiliarrek, familia ez-egoiliarrengandik eskudirutan edo espezetan jasotako transferentziak
- - 1.-Egoiliarrek ez diren ekonomia baten lan egiten duten eta
  - 2.-egoiliarrek izanik egoiliar ez den enpresa batengatik kontratatuak diren

mugaldeko, alde-bateko eta beste soldatapeko langileek jasotzen dituzten sarrerak

## NAZIOARTEKO ZUZENEKO INBERTSIOA (NZI) (EGUNGO \$etan)




Iturria: Munduko Bankua. Eskuragarri [datos.bancomundial.org web-orrian](http://datos.bancomundial.org/web-orrian).

Datuak egungo US\$ preziotan neurtuta daude.

## NAZIOARTEKO ZUZENEKO INBERTSIOA (NZI) (EGUNGO \$etan)

- Kudeaketa-kontrol iraunkor bat (orokorrean, bozkaketa eskubidea ematen duten akzioen %10 edo gehiago) lortzeko egindako inbertsio garbien sarrerek osatzen dute Nazioarteko Zuzeneko Inbertsioa (NZI). Honako hauen batura da:
  - akziodunen kapitala
  - irabazien berinbertsioa
  - bestelako epe-luzeko kapital mota batzuk
  - bestelako epe-laburreko kapital mota batzuk
- Segida honek guztizko garbia adierazten du, hau da:  
Atzerriko iturrietatik etorritako NZI garbia – Atzerrira bidalitako NZI garbia
- Segida honek ekonomian barneratutako sarrera garbiak adierazten ditu eta BPGagatik zatitzen da.

## NAZIOATEKO MERKATARITZA (BPG%)



Iturria: Munduko Bankua. Eskuragarri [datos.bancomundial.org](http://datos.bancomundial.org) web-orrian.

## Salgaien merkataritza (BGParen %)

Salgaien merkataritza, BGParen % gisa, salgaien esportazioen eta inportazioen batura da, dena BPGren balioagatik zatituz. Guztia Estatu Batuetako egungo Dolarren prezioetan neurtuta dago.



## NAZIOARTEKO OGASUN PUBLIKOA

Ekonomiako aspektu gehien globalizazioak, Ogasun Publikoaren arazo eta helburuak gero eta internazionalagoak izatea eragiten du eta aspektu internazional hauek oso garrantzitsuak dira ez bakarrik terminu kualitatiboek dagokionez (pizgarriak, arauketa...) baita terminu kuantitatiboek dagokionez ere (aurreko grafikoetan %1eko hazkunde edo jeitsierak izango lukeen eragina ikusi beharko litzateke).

Ogasun Publiko internazional batek (globalizatua edo helburu globalak dituen) Ogasun nazional batek dituen helburu berdinak izan beharko lituzke (printzipioz behintzat):

- Efizientzia
- Ekitatea
- Egonkortasuna
- Hazkundera

## NAZIOARTEKO GASTU PUBLIKOA

**Irakagai honetan zergei buruz arituko garen arren, sarreran Gasto Publikoaren arazoan (horietako batzuk) erreparu bat eta nazioarteko kooperazioen egoeraren erreparu bat egingo dugu. Zalantzarik gabe, Gasto Publiko internazional bat existitu dadin, existitzen ez den Ogasun Publiko internazional bat existitu beharko litzateke (hortik dator izenburuko galdera ikurra).**

**Ekonomia publikoko literatura jarraituz, Sektore Publikoak ekonomian eskua hartzen du efizientzia, egonkortasun eta hazkunde edo ekitate arrazoiengatik (gai honen inguruko edozein eskuliburu begiratu (Rosen, 2008)).**

**Efizientzia arrazoiagatiko esku-hartzeak, normalean, merkatuko akatsen bat existentzen delako izaten dira. Hona hemen merkatuko-akats garrantzitsuenetako batzuk:**

# NAZIOARTEKO GASTU PUBLIKOA

## 1- MERKATUKO-AKATSENGATIKO ESKU-HARTZE INTERNAZIONAL POSIBLEAK:

- **ONDASUN PUBLIKOAK:**

- **Akatsaren ezaugarriak:** Lehiakortasun eza kontsumoan (baztertzeko ezintasuna). Adibide gutxi gora-behera garbiak: Defentsa, ikerkuntza, justizia, polizia. Nabariak dira gastu guzti hauen aspektu internazionalak (Siriako krisia, groga-trafikoa, ikerkuntza-patenteak eta beraien kontrola...)

- **“Konponbide” internazionalak:** NBE, NATO, Hayako Auzitegia, interpol... Ez dira ez nazioz-gaindiko erakundeak eta ezta erakunde nazionalen batura ere. Ezer ez edukitzea baino hobeto baldin badira ere, ez dirudi oso operatiboak direnik.

- **KANPO-ERAGINAK (berez,aspektu askotan ondasun-publikoen kasu partikular bat da):**

- **Akatsaren ezaugarriak:** Jabetza arazoa. Eskubide hori sortzen ez denez, ez dago ez merkaturik eta ezta preziorik ere, beraz, ez dago konponbide lehiakor (efiziente) bat izan ahalko litzatekeen ezer. Kutsadura, euri-azidoa, osasungarritasuna, medikuntza prebentiboa (izurriteak).

- **“Konponbideak”:** Munduko Osasun Erakundea, Ingurugroaren nazioarteko hitzarmenak (Rioko goi-bilera, Dibertsitate biologikoaren hitzarmena...)

# NAZIOARTEKO GASTU PUBLIKOA

## 2- EKITATE ARRAZOIENGATIKO ESKU-HARTZE INTERNAZIONALAK:

- Lurralde-arteko ekitate arazoak
- Migrazioari elkartutako arazoak
- Konponbideak: FAO, UNICEF...

## 3- EGONKORTASUN ETA HAZKUNDE ARRAZOIENGATIKO ESKU-HARTZE INTERNAZIONALAK:

Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtsa...

# FISKALITATE INTERNAZIONALA

Geografikoki Zerga-administrazio subirano batean lokalizatutako zerga-eskumenak gero eta zentzu gutxiago dauka gero eta globalizatuagoa den gizarte batean.

Zergen arloan existitzen da disfuntsio handiago bat lurraldean oinarria duen estatuko erakunde baten eta errealitate global baten artean. Egungo mundu-krisia adibide argi bat da. Ez bakarrik bere kontrola zerga-jardueraren bitartez, baita bere arauketa , adibidez:

- Eskumena daukaten zerga-erakundeei nazioarteko informazioa (politika ekonomikoaren kontrol hobeto bat lortzeko edo zerga-ordaintzetik ihes egitea saihesteko)
- Administrazioen arteko zerga-armonizazioa

Argi eta garbi, finantza-kapitala da zerga-erakunde nazionalen errezen iruzur egin diezaiokeena. Hala eta guztiz ere, beste zerga-oinarri batzuk ere gero eta gehiago deslokalizatzen dira (lana, zerbitzuak...)

## **“NAZIOARTEKO” ZERGEN PROPOSAMEN BATZUK**

**Arauketa, bilketa eta banaketari buruzko alde-anitzeko zerga-akordio bat ez bideragarria ez dela dirudien arren, maila teoriko baten zerga-globalen proposamen desberdinak existitzen dira, zeintzuek foro desberdinetan proposatuak izan diren denboran zehar.**

**Hona hemen hauetako batzuk:**

## “NAZIOARTEKO” ZERGEN PROPOSAMEN BATZUK

•1.- TOBIN TASA: Nazioarteko finantza-transakzioen gaineko zerga bat da, zeinek espekulazioa eta nazioarteko desegonkortasun finantzieroa murrizteko helburua duen. Mundu mailan egun bakoitzean bankuen artean egiten diren transakzioak TRILIO BAT DÓLAR baino altuagoak direla kalkulatu da (Rubio Guerrero) . Mekanismo honek ibertsioa eta epe-luzeko kredituak hobetsiko lituzke eta epe laburreko mugimenduak zigortuko lituzke.

Arazoak praktikan (baina ez teorian) oso garrantzitsuak dira:

- Finantza-transakzioak nazioarteko bote altua duten herrialdeetan kontzentratzen dira (mundu mailako operazioen %75<sup>a</sup> EEBB, Japon eta Eban kontzentratzen dira)
- Paradisufiskalen bitartez egindako iruzur-fiskala errazten du.
- Finantza-erakunde garrantzitsuenak kaltetuenak izango lirateke.
- ...

## “NAZIOARTEKO” ZERGEN PROPOSAMEN BATZUK

• **2.- INGURUMEN-ZERGA (carbon tax):** CO2ren gaineko zerga bat izango litzateke, berotze-efektu globalen aurka borrokatzeko. Ezaugarriak:

- Onura-printzipioa aplikatzen duelaren abantaila dauka (gehiago kutsatzen dut, gehiago hazten naz (hobeto bizi naiz), gehiago ordaintzen dut).
- Garapen-bidean dauden herrialdeekin asimetria arazoa.
- Kudeatzeko zaila ez den zerga bat da. Are gehiago, herrialde gehienek helburu berdina duten hidrokarburoen gaineko zerga bat dute.
- **ARAZOAK:** arazo politikoak (subiranotasunaren lagatzea) eta korporazio handien interesen arazoak

• **BESTE BATZUK:** Abiazioaren fuel-olioa, internet eta posta-elektronikoaren gainekoa (bit tax)...



# BIBLIOGRAFIA

## ESTEKA ETA DOKUMENTUAK:

- [http://europa.eu/index\\_en.htm](http://europa.eu/index_en.htm)
- <http://datos.bancomundial.org/catalogo-de-datos>
- Albi Ibáñez, Emilio (2005): “La globalización económica como marco de las relaciones internacionales. Nuevas tendencias en economía y fiscalidad internacional”. Septiembre-Octubre. nº 825 ICE.
- Carbajo Vasco, D. (2006): “Globalización y Hacienda Pública”. VIII Reunión de Economía Mundial. Alicante, 20, 21 Y 22 de Abril.
- Rosen, H. (2008): “Hacienda Pública”. McGraw Hill. Madrid.
- Rubio Guerrero, Juan José (2008): “Mecanismos fiscales para la globalización económica y social un enfoque de hacienda pública internacional”. En “Economía Industrial” núm. 370 4º trimestre.